

## Goikobalu abesbatzari buruzko hitzaldia

2016/02/29

Gustatzen al zaizu abestea? Arrasateko Goikobalu abesbatzak Mondragon Unibertsitateko ikasle, irakasle eta langileei abesbatzan kantatzeko aukera eskaini nahi die. Horregatik, bihar, martxoaren 1ean hitzaldi bat emango du Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko areto nagusian 18:45ean. Hitzaldiaren helburua abesbatza ezagutaraztea eta datorren urteari begira abesbatzarako kide berriak lortzea da, norbaitek orain hasi nahiko balu ez du arazorik izango. Esperientzia horretan parte hartzen duten ikasleei kredituak emango zaizkie datorren ikasturteik aurrera.

